

ABIZENAK

Aramendi(a): Andoain'en eta Ordizia'n etxeak.
Ara- irea dan ezkeru, irea dagon mendia litzateke.
Eibar'en agertzen da lenengoz 1618n. urtean.

Aranalde: Gorriti'n eta Gipuzkoa osoan.
Aran-landarak dagozen lekutik urtean esan gura dau.
Aran ibar lez artu ezkeru, ibarraren ondoan da.
1611n. urtean agertzen da Tolosa'n.

Aranaz: Aran izan leiteke landara bat edo ibarra. -az toki-atzizkia da. Orduan aran-landarak dagozen lekua edo ibarrean.

Aranaz Naparroako errian agertzen da etxea eta idatzita lenengoz 1692n. urtean Santiago'n.

Arandia: Durango eta inguruetan agertzen da etxea.
Aran-landarak dagozen lekua esan gura dau.
Balladolid'en agertzen da idatzita 1643n. urtean.

Aranegi: Aran ibarra da edo landarea. Izan leiteke Aran-landarak dagozen aldapa edo ibarra dan ikuspegia.
Gipuzkoan agertzen da.

Arangiz: Araban eta Markiña-aldean dagoz etxeak.
Aran landarea da eta -gi edo -di ugaritasun-atzizkia. -z abizenaren ezaugarri.
1538n. urtean idatzita dago Balladolid'en.

Aranguren: Bizkaian toki askotan dagoz etxeak, Zea-nuri'ko Ipiñaburu'n be bai. Gipuzkoan eta Araba'n be toki askotan.

Goren dagon arana izan leiteke.

Eibar'en agertzen da idatzita, 1578n. urtean.

Aranzabal: Ibarzabal lez bardin. Elgeta'n agertzen da 1415n. urtean.

Aranzadi: Ezkioga'n iru etxe. Arantza asko dagon lekua da.

Tolosar batek daroa abizena 1346n. urtean.

Arakistain: Elgoibar'en da toki izena.

Ara- irea izan ezkeru, -ustia ugari-atzizkia da eta -ain'ek gaiña adierazten dau. Ira asko dagon tokiaren gaiñean.

Elgoibar'en agertzen da idatzita 1657n. urtean.

Arauko: Arau- irea da eta -ko toki atzizkia. Irek dagozen tokiko etxea.

Itxas-gizonen artean agertzen da 1768n. urtean.

Arbe: Gipuzkoa'tik eta Naparroa'tik dator.
Alba bedar legortuaren lekua da, arriaren barrena be izan leiteke.

Azpeitia'n 1348n. urtean.

Arbelaitz: Irun-inguruan sortzen da eta arbelezkoa (pizarrazkoa) dan aitza esan nai dau.

Arberas: Benabarra'n sortua da eta andik zabaldua.
Arripea gogoratzen dau eta be-aldea, edo berantza.
1686n. urtean idatzita dago.

Arbizu: Izen orretako erria Naparroan.
Arbia "nabo" lez artzen dogu eta -tzu'k ugaritasuna dakar. Arbi asko dagon lekua.

1461n. urtean agertzen da Oñate'n abizen au dauan Rejidore bat.

Arbolantxa: Abizen zarra da Bizkaian. Mungia'n be bai.

1493n. urtean agiritan dago.

1212n. urtean Nabas de Tolosa'n agertzen da.

Arbulu: Arri-buru edo aitzaren goi-aldea da. Gipuzkoan dago geiago, baiña Elorrio'n be bai.

Oiartzun'en 1570n. urtean.

Arze: 300n. urtean Santander'en dago eta aindik datoz Bilbao'ra.

Arri-lekua dala dirudi.

Oñate'n agertzen da 1724n. urtean.

Aretxabala: Antxiñako toki izena Bizkaia'n. Batzar-lekua Bizkargi-azpian.

Arizti zabala da.

Bilbao'n 1661n. urtean.

OLAZAR'tar Martin'ek